

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarteak Bergara 1994, Otsailak 11



**Haratuztietan mozorroto
zaitez zu ere!!**

Zure jaunartze argazkietarako

KIÑU

TXANDA HAR EZAZU

Barrakalea, 25 - 76 58 05





"Gur
baserria
hazitak
txahalak

**KALITATEA
HELBURU!**

***Pello eta Arantza Urzelai Uberako
Egurbide Txiki baserrikoak, kalitate oneneko haragia
eskainzten dizue Ibargarai kaleko Urcelay harategian***

- **Nondik ekartzen duzue hain itxura oneko haragia?**

- Okela geure baserrian hazitako behi eta txahaletatik ateratzen dugu. 70 bat buru ditugu.

- **Nola hazten dituzue txahalak?**

- Gure harategiko okela guztia produktu naturalekin hazitako txahala eta behietatik ateratakoa da, artisauek erarara hazitakoak direla esan dezakegu.

- **Ze ematen diozue jateko?**

- Pentsua, artua, garagarra eta zaixarekin egiten dugu. Beraz, zereal naturalak erabiltzen ditugu.

- **Eta bizkorrago hazteko edota animalia loditzeko produkturik erabiltzen duzue?**

- Ez, ez, produktu artifizialak debekatuta daude gure etxean, dena naturala da.

- **Ateratzen diozue errentabilitatea?**

- Urcelay harategian argi daukagu gure bezeroak direla inportanteenak. Klienteari kalitaterik hoberena eman behar zaio eta hori da gure erronka.

- **Beraz, ze eros dezakegu Urcelay harategian?**

- Ba, behi haragiaz gain, txerriarena ere bai..., eta txerri guztiak: urdaziapikoa, txorizoa...

**Urcelay
HARATEGIA**

Ibargarai, 16 ☎ 76 00 45 / 76 37 77



Z E R B E R R I D A ?

ESAN DUTE

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Telefonoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
Lardun Elkartea
Nasterreka, 13. 20.570 Bergara.
76 08 19

Argazkaria:
Gorka Elorza.

Erredakzioa:
Mikel Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkorobereibar.

Argazkaria:
Mikel Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Argazkaria eta harpidetza:
Mikel Azkarate eta Gorka Elorza.
76 03 97

Argazkaria:
Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Angel Elkorobereibar, Juan Martin Lepuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Aerea Alzelaia, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Elastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Aikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Miren Goenaga.

Argazkaria:
Pol-Pol Argazki Taldea.

Argazkaria:
Juan Antonio Unzurrunzaga.

Argazkaria:
Miltor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.

Argazkaria:
Antxongorri Taldea.

Argazkaria:
3.500 ale.

Argazkaria:
Bertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Argazkaria:
Copyright: BERRIGARA
Lege gordailua: SS 50/ 91
SSN: 1130-6599

Argazkaria:
BERRIGARA ez du bere gain hartzen idazkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

JOXE LAZKANO

epaitzeaz dagoen intsumisoa

- Zergatik intsumiso?

- Ez dudalako soldaduska egin nahi. Soldaduska militarrek inposatzen digute eta intsumisook ez gaude inposaketarik onartzeko. Zibilak gara eta ez dugu militarrekin ezer nahi.

- Baina Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko aukera ematen du Estatua...

- Bai, baina soldaduska militarrek inposatzen diguten moduan, Ordezko Zerbitzu Soziala (PSS) Estatua inposatzen digu, azken finean zerbait indarrez inposatzea da... Gainera, Ordezko Zerbitzu Soziala soldaduskak gizaratean duen irudi txarra garbitzeko asmatzen dute Estatuek.



- Zer esango zenieke soldaduskara joateko adinean dauden gazteei?

- Soldaduskara joatea zer den jakin dezatela eta erabaki bat hartu aurretik ondo pentsa dezatela esango nieke. Eta gero, buruari nahikoa buelta eman ondoren hartu dezatela erabaki kontsekuentea.

"Azkenean aukeratu dugun figura juridikoa Bigarren Graduko Kooperatibarena izanda, hau da, kooperatiben kooperatiba degenezakeena. Kontutan izan behar da legeriak ez direla berdinak euskal lurralde guztietan eta 1993ko ekainaren 24ko lege bati heldu diogu figura zabal hori aurkitzeko. Horren babesean bil daitezke Iparraldeko ikastolak ere, kooperatiba izateari utzi dioten beste zenbait."

IÑAKI MADARIAGA
Aranzadi Ikastolako lehendakaria (abokatua)
IKASTOLA ALDIZKARIA

"Intsumisoak ez gaude militarren inposaketak onartzeko prest"

ITURRI ONETIK

Bosniaren Aldeko Batzordea lokalen bila

Gure herrian sortu berri den Bosniaren Laguntzarako Plataformak lokalak bilatzeari ekin dio azken egunotan, jaso nahi diren eskolako materiala, medikamentuak, etab.en bilketa errezteko asmoz. Dirudienez, eta Udalaren laguntzaz, Plataforma honek partikularrek utzitako bi lokal lortu ditu dagoeneko, Zunbeltz tabernaren ondoan bata eta San Antonion bestea. Udaleko Brigadak hainbat lan egin ditu lokalak ahalik eta egoera onenean egokitzeko. Bosniaren Laguntzarako Plataformak datozen egunotan egingo du solidaritate kanpaina.

"Europako beste herrialde batzuetan izaten diren lasterketetara joan beharko ginatke Estatuko zirklo-krosslariak. belgiar, holandar edota italiar txirrindularien mailara iritsi nahi badugu, euren artean konpetitu behar dugu esperientzia hartzeko"


IÑIGO IGARTUA
Txirrindularia
ETB



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



**LA FAMILIA ADDAMS
LA TRADICION CONTINUA**
Larunbata: 17.00, 19.30
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astlehena: 19.30.



EL MARIACHI
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 22.30.



BLADE RUNNER (B.O.)
Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ *Morticia, Gómez, Fétido, Cosa, Miércoles...* eta beste hainbat pertsonaia beldugarri... eta barregarri. Familia bitxia benetan **Addamstarrek** osatzen dutena. Lehen zatian bezala, **Barry Sonnenfeld** zuzendari eta **Anjelica Huston** eta **Raul Julia** dira aktore nagusiak.

▼▼ **Robert Rodriguez**ek filme on bat diru gutxirekin nola egin erakusten digu. Kitarra funda batek mila nahaste ekarriko dizkio edonon abestu nahi duen *mariachi* bati. Bere burua defenditzeko kapaz ere badela frogatu beharko du...

▼▼ Bigarren aldiz iragarrita, azkenean heldu zaigu **Ridley Scott**en kultozko filmea. Etorkizuneko Los Angelesen kokatuta, **Harrison Forde** (oraingoan poliziaren paperean) "*replikante*"ekin akabatu beharko du. Baina, beti bezala, amodioa tartekatuko da...

Deiak

▼ **Txema Muñoz** argazkilararen erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Altuna Akizuren** erakusketak Donostiako Olaetxea Arte Galerian (Aldapeta, 5).


▼ **Hazurbaltzak** taldearen konpartzeak Pizinetako tabernan ostiralean gaueko 11tan. Sarrera: 2000. (BOTaren alde).

▼ **Perdidos en Africa** filmaren erakusketa 11.30etan Novedadesen.

▼ **Karnabalak Antzuolan**: Larunbatean, Gaztetxearen aldeko festa egun guztian zehar: 12.00etan txistorra eta salda, 19.00etan pota eta 21.00etan afaria Gaztetxearen Igandean, Sorgin Dantza 12.15etan.

Ogia

▼ **Igandea 13:** Bolintxo.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 12:** Puy.
- ▼ **Igandea 13:** Puy.
- ▼ **Astlehena 14:** Guallar.
- ▼ **Asteartea 15:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 16:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Osteguna 17:** Camacho/Irizar.
- ▼ **Ostirala 18:** Puy/Ruiz.

Iletxo

Ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktoorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den guztia*

Ibargarai 10,
☎ 76 38 32

ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

Maitasun HITZAK

Astelehenean banatuko dira Amodiozko Gutunen II. Berrigara Lehiaketako sariak Zabalotegin

Ekhiñe Egiguren Azkune 15 urteko donostiarrak irabazi du JARDUN Elkarteko Kultur taldeak antolatutako Amodiozko Gutunen II. Berrigara Lehiaketako lehen saria (75.000 pta.) "Michelle" lanari esker. Bigarren saria Jon Sanchez Idigoras (18 urte) bergararrarentzat izan da ("Irene vs. Katti", 40.000 pta. gehi lehen herritarrari zegozkion 25.000 pta.) eta, horrez gain, epaimahaiak bi aipamen egin ditu: Oihana Etxebarria Arenaza 21 urteko atxabaltarra ("England") eta Roberto Izagirre Barruetabeña 32 urteko bergararraren ("Bi maitasun amets") lanak.

Aurtengo edizioan Arantxa Iturbe Euskadi Irratiko kazetaria, Iñaki Mendiguren idazlea, Mikel Markez kantaria eta Miguel Angel Elkorobe-



Iñaki Mendiguren, Mikel Markez, Miguel Angel Elkoroberezibar eta Arantxa Iturbek osatu dute epai mahaiak.

rezibar irakaslea eta BERRIGARAKO zuzendari ohiak osatu dute epaimahaiak. Arantxa Iturbe eta Miguel Angel Elkoroberezibar iaz ere epaikide izan genituen. Beren hitzetan, "aurreko urtearekin konparatuz, edizio bonetan sexu gehiago

egon da (iaz oso gutxi), homosexualenak, berriz, gutxitu egin dira, beriotza gehiago tratatu da eta Euskal Herriaren egoera gutxiago. Aipatu beharko litzateke, saritutakoen artean harritu gaituela zein ondo erabiltzen duten bizkuntza; lehen sariak, 15 urtekin, dominio haundia azaldu du".

Mikel Markezek dioenez, "nabiz eta lehen saria atera beharbada oso gutun erreala ez da, espreski lehiaketarako idatzi izan dela ematen du eta eguneroko freskota-

suna falta zaio. Aipatze-ko bi sari daudela iruditu zaigu, eguneroko erre-alismoa, freskotasuna, zuzeneko barremana nabaritzen delako, ez dira egoera hipotetikoak".

Jon Sanchezen gutu- nean zera goraipatu zuen Miguel Angel Elkoroberezibarrek; "egoera bat sortu du, orijinaltasuna eta prostitutaren kasua aztertu du topiko haunditan sartu gabe, aspektu sozialak alde batera utzi eta pertsonaletan zentratuz. Mozorrotzeko duen kapazitateak destakatzeko da; iaz 6 urteko mutil baten ikuspegitik idatzitakoa zen eta aurten nekaren papera hartu du".

69 gutun jaso dira: Gipuzkoatik 62 (horietatik 25 bergararrak), Bizkaia- tik 6 eta bestea Nafarroa- tik. Emakumezkoenak izan dira nagusi eta bati- pat jende gazteak hartu du parte. Sari banaketa astelehenean izango da 19.30etan Zabalotegiko aretoan. Mikel Markezen saioa, Asier Serranoren poesia errezitaldia eta saritutako gutunen irakur- keta iragarri dira

**Ekhiñe Egigurenek jasoko
du lehen saria eta Jon
Sanchezek, bigarrena eta
lehen bergararrarena**

AZPEITXI

Aranerreaka, 13 behea ☎ 76 55 00

LAISTER ZABALIK!!

Jatetxea

Egiaren jauntxoei

Behinola aintzirak itzuli zion bu-ruisladak liluraturik geratu zen Narkis- sok ongienik ikasi gisaz, gure arteko batek baino gehiagok landare bilaka- tzearen arrisku gorria jasaten du as- paldion; bere irudi erreala ikusi nahi ez eta, hauxe eskaintzen dioten ispi- luak oro txikitu asmoz zangoak loka- tzean noraino sartzen ari zaizkion ohartu ezinik omen baitabil. Udal bil- tzarrak EGIN egunkariaren aurkako neurriak hartzea da hitzok kateatzera naramana, astekari honetan alkate jaunaren adierazpen batzuk aurkitzeak areagotu dituelarik mintzatu gogoak.

Bergaratar bozka gehien jaso zuen indar politikoa iri alkatetza ohostu zion alderdi talde dontsuak "demokrazia"z hitzegia dexente tristea da, berbak izan lezakeen esanahi joria endekatua uzten baitute bai udal gobernu esku- ratzeko erabili zuten itxurakeriagatik nola egunez eguneko praksian man- tentzen duten jokamolde totalitario- gatik. Halabaina, oraingo honetan EGINen aurkako erabakiaren funtsean "egintza demokratiko" a dagoela go- raipatzeari okaztagarria deritzot, zi- nez.

Zer dela eta herritarrok gertuen dugun instituzioaren ondarea beren jabetgo pribatua bailitzan gu denon es-

kubideak zapaltzerainoko paternalke- ria bereganatzen dutela herriko ko- munikabiderik irakurrieneraiko den EGINi publizitatea ukatzeaz gain in- formazio iturri ofizialak itxiz! Eta herri- aren "gehiengo"aren izenean... Patrika bero, bihotza hotzik: hauxe hauen kon- tsigna.

Euskal Herriaren batasuna ukatzen duten lege atzerritarrak ontzat hartu eta beren defendatzailerik sutsuenak bihurtu zaizkigun hauek beren buruak "demokrata"zale izendatuz, aipatu le- geok pairatu behar ditugun langile, gazte, ikasle, emakumezko zein gizo- nezko euskaldunok espainolizatu nahi gaituzte beren bihotzezko Espainia maitean eroso senti gaitezen, eta tes- tuinguru hau da EGIN egunkari herri- tarraren aurkako kanpainari zentzua ematen diona, nahiago baitute beren azpijokuak estaltzen dituen prentsari sosak barra barra oparitzea gure herri eskubideak aldarrikatzen dituen aho- tsa entzun beharra baino. Alderdike- riatzat ulergarri izan litekeena institu- zionalizatzea da jasangaitza egiten zaidana. EGINen irakurleok ez al diz- kiegu soldatak ordaintzen gure zergak direla medio? EGINen erosleok ez al gara besteak bezain bergaratar? Agin- pidea eta boterea nahastea, berbaon esanahiak ez bereiztea dugu edozein tiranotxoren ezaugarri nagusi.

Helduko da, ordea, gaur egun zai- patruak garenok garaile izango ga- reneko eguna. Orduan, egun bezalaxe tinko eta duin esango dizuegu, demo- krata amorratu omen zaretanoi: Euska Herriak denok behar gaitu. Bego.

JOSE MARIA ETXANIZ ZORRILLA

Zuzenketa

Lokatza Txirindulari Taldeak ha- rremanetarako duen telefono zenbakia 76 02 16 (Gabilondo) da eta ez 76 2 60, "Berrigara Gida 94"an argitarat- zen bezala.

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Merkatuko baldintza pleguak onartu dira

Aurreko ostiralean merkatu berriko postuak adjudikatzeko baldintza pleguak onartu ziren, EAJ eta PSE-EEren aldeko eta HB eta EAren kontrako botoekin. Bozketaren aurretik Victoriano Gallastegi alkateak hartu zuen hitza, prezioa finkatzeko eraman den prozesua azalduz. *"Merkatuak 299 milioi pta.ko aurrekontua izan du baina guzti horri hainbat kopuru kendu behar zaio: Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza (30 milioi inguru), garajeen urbanizazioa (10), fatxadako barria (19) eta merkatu zaharraren salmenta (37). Errebalorazioa eginez, postu bakoitzak 4 milioi pezetako kostua izango du".* Alkatearen hitzetan, *"komertzianteeek Ermuako azokarekin atera dituzten zifrak ez dira be-*

netazkoak. Han metro karratu bakoitzak bemen baino 21.000 pta. gehiago balio du". Beren esanetan, inaugurazioa ekainaren 1ean izango da.

Komertzianteeek postu bakoitzeko 3 milioi eskeini eta merkatuan hainbat hobekuntza egitea (tartean lehen solairuko plataforma) eskatzen dutela. Ostiraletik hasita, 15 eguneko epea izango dute (lehenengo 7 komertzianteeek izango dute lehentasuna) postuak eskuratzeko. Hortik aurrera, lehiaketa publikora aterako dira libre geratzen diren postuak.

Botoak esplikatzeko orduan, Jose Luis Elkoro HBko zinegotziak, merkatu zaharra 80 milioitan saltzea kritikatu zuen, *"Udalak bere historian egin duen operaziorik txarrena izan zela"* aipa-



Merkatariak eta Udala ez dira akordio batera iritsi.

tuz. Victoriano Gallastegi alkateak, salmenta alderdi guztien oneritziarekin egin zela gogoratu zion. Juan Kortabarriak (HB), berriz, baserritarren eritzia ez dela kontutuan izan salatu zion alkateari eta honek harremanak izan direla erantzun zion.

Juan Mari Garitanok (EA), bere alderdiak beti lehen solairuko plataforma defenditu duela esan zuen. Victoriano Gallastegik komisio informati-

boetan ez direla inoiz kontra azaldu eta komertzianteen eritzia jakin eta gero hartutako postura dela esan zion. Garitanok batzordeak informatiboak direla bakarrik erantzun zion.

Pleno amaieran, alkateak eskerrak eman zizkion Andoni Larragañagari, egindako lanagatik. Larrañaga, guztion kolaborazioa eskertuz agurtu zen. Bere zinegotzi postua Jabier Zabaletak bete-ko du.

Etxea brintzatu Arruriagan

Arruriaga kaleko 5 eta 7. zenbakiko etxebizitzak botatzeko Construcciones Artzamendi enpresak egindako lanak 9. zenbakiko etxeari hainbat kalte eragin dio. Etxea brintzatu egin da eta bertako bizilagunek etxea utzi behar izan zuten astelehenean, Arruriaga trafikorako moztu zelarik. Aparajadoreak eta Udaleko ordezkariak ere bertan izan dira, egoera eta soluzioak aztertzeko (bertan gaua pasa nahi ez zutenei beste bizileku bat egokitu zaie). Badirudi Artzamendi enpresak kontratatutako aseguru etxeak ordaindu beharko dituela egindako kalteak. Etxeko ezker partean sujezioak jarri eta lanek aurrera darraite.



YAZKI
UME GAZTE
Neska eta Mutil
 Irizar 3 lbargarai 8
 ☎ 76 16 54 ☎ 76 54 73

KIZKUR

Ileapaindegia
Solariuma
 Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
 ☎ 76 19 54 BERGARA
 ☎ 79 91 82 ARRASATE

◆ Bosniaren alde

Herriko hainbat artistek eskainitako 36 koadro salgai jarriko dira Kultur Etxean otsailaren 14tik 27ra bitartean, Bosniaren aldeko dirulaguntza jaso asmoz. Bestalde, datorren ostiralean eskolarako materialen bilketa egingo da herriko ikastetxeetan. Eta, azkenik, beharrezkoak zaizkien medikamentuen zerrendak herriko farmazietan jarri dira. Medikamentuak bertan jasoko dira martxoaren 5era arte.

◆ 14 urte espetxean

Jose Mari Etxaniz eta Iñaki Ibabek espetxean 14 urte betetzen dituztela eta, Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak zenbait ekitaldi antolatuta ditu; ostegunean "Dispersioa eta espetxetako egoera" hitzaldia 19.30etan Pol-Polen eta ostiralean, gaueko 10etan, 3 pelota partidu Frontoian. *Estelarra*, Reyes Azkoitia eta Joseba Askasibarren artekoa. Sarrerak 500 pta.tan ohizko tokietan.

◆ Unzurrunzaga saritua

Juan Antonio Unzurrunzaga bergararrak Kanarietako Real Club Nauticok "Itsasoa" gaiaren inguruan antolatutako argazki lehiaketan, koloretan, 2. saria irabazi du.



Ertzaintzak epaitegion kateatutako gazteak kanpora atera zituen.

BOTAREN protestaldia Epaitegion

Astelehen goizean, BOTA taldeak antolatuta, 12 gazte Bergarako Epaitegiko sarreran katetatu ziren Gipuzkoako intsumisioen aurka (tartean Joxe Lazkano, Gustavo Abajo eta Miguel Albeniz bergararrak) hasi diren epaiketen aurka protesta egiteko. Ertzaintzak kataia moztu eta gazteak desalojatu zituen handik gutxira. Jarraian gazteek, BOTAREN izenean, idatzi bat aurkeztu zioten Bergarako epaileari, intsumisioen jarrera eta egoera azalduz. Bergaran 40 gazte dira soldadutza edota Ordezko Zerbitzu Soziala egin nahi ez dutenak.

Asteazkenean, otsailak 16, Joxe

Lazkanoren epaiketa izango da Donostian eta 4 testiguk egingo dute Joxeren aldeko deklarazioa: Juan Martin Elexpuru idazlea, Jose Mari Galan Ipintza Institutuko irakaslea, Xabier Zubizarreta Santa Marinak parrokoa eta Ana Coranti koadrilako lagunak. Gustavo Abajore epaiketa martxoaren 3rako iragarritako dago (beharbada atzeratu egingo da) eta Miguel Albenizen epaiketa martxoaren 24rako.

Bestalde, gaur 19.30etan potek enkartelatua egiteko asmoa zegoen eta bihar, berriz, 12.30etan, manifestazio-kalejira egingo da. BOTAREN alde egingen du parte hartzeko.

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARRAÑAGA
eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Ostalaritza ikastaroak Oñatin

Otsailetik ekainera 9 ikastaro emango dira

Oñatiko Ostalaritza Eskolak, Diputazioko Ekonomia Departamentuaren laguntzaz, ondoko ikastaro hauek antolatu ditu datozen hilabetetarako: *Hotelen jestioa* (Fernando Retegiren eskutik (martxoaren 7tik 30era, 36 ordu, 20.000 pta.), *Harreman publikoak eta protokoloa* (Maite Saenz, maiatzaren 3tik 21era, 27 ordu, 16.000), *Ekitaldien antolaketa* (Iñaki Galdos, maiatzaren 31tik ekainaren 16ra, 24 ordu, 14.000), *Ebiza* (Koldo Lasa, otsailaren 14tik martxoaren 1era arte, 21 ordu, 19.000 pta.), *Cocina al vacio* (Koldo Lasa eta Roberto Maiztegi, maiatzaren 7tik 30era arte, 36 ordu, 30.000), *Especializatutako errepostaria: txokolatea* (apirilaren 11tik maiatzaren 2ra, 30 ordu, 26.000 pta.), *Nutricion y dietetica* (Roberto Maiztegi, apirilaren 11tik maiatzaren 2ra, 30 ordu, 17.000), *Udaberriko produk-*



Koldo Lasak hainbat ikastaro emango ditu.

tuak (Koldo Lasa, maiatzaren 3tik 24ra, 30 ordu, 26.000) eta *Especializatutako errepostaria: izozkia* (Jesus Uribarren, maiatzaren 25tik ekainaren 15era, 30 ordu, 25.000).

Argibide gehiago Oñatiko Ostalaritzan bertan (Moiua kalea, 13) edota 71 61 90 telefonoan.

◆ Diru bilketa Santa Marinan

Santa Marina Parrokiak hilabeteroko 2. domeketan diru-bilketak egingo ditu erosioaren eraginez oso egoera txarrean dagoen kanpandorreari buruz egin behar izan zen informe teknikoa ordaindu ahal izateko. Informe hori Alemanian egin zen eta 1.917.480 pta. kostatu zaio Santa Marinako Parrokiari. Hurrengo diru-bilketa igande honetan egingo da.

◆ 6 urteko kartzela zigorra "Aska"ri

Auzitegi Nazionalak 6 urteko kartzela zigorra ezarri dio Miguel Angel Askasibar "Aska" bergarar gazteari. Auzitegiak ETako kideztat jotzen du Miguel Angel Askasibar. Askasibar 1991eko otsailean atxilotua izan zen Zarautzen, "Goierrri" komandoaren aurka egindako ekintzaren barne.

TANGO, ROCK & ROLLA, MANBOA...

dantza ikastaroa

SAKONTZE MAILA

noiz:

Otsailaren 19tik apirilaren 23ra arte.

ordua:

Larunbatetan 16.30etatik 19.00etara.

izen ematea:

Otsailaren 16a baino lehen JARDUNen (76 08 19)

Prezioa:

- Bazkide direnentzat: 4.500 pzta.

- Ez direnentzat: 5.000 pzta.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Badatoz, heldu dira, hemen daude: Karnabak. Beste herri batzuetan bezain ospetsuak ez badira ere, gero eta parte hartze haundiagoa dute gure herrian. Larunbat eta asteartean, bergarar asko izango dira moztrotuta kalera irtengo direnak.

Udaleko Kultur Zerbitzuak hainbat ekitaldi iragarri ditu aurtengo haratuzte jaietarako. Larunbatean, arratsaldeko 4retan, "Badatoz trogloditak" ikuskizuna Aske atsedentalde eta JARDUNeko gazte taldearen eskutik; 5etan haur jolasak plazan; 7etan buruhaundi eta erraldoien kalejira Udal Txistulari Banda eta Kobok dultzaineroak animatuta; orduerdi beranduago Xamatx dantzataldearen kalejira eta Luzai-



Aurreko urteetan antolatuta bada ere, aurtun ez da moztrotu lehiaketarik izango.

Haratuzteetako egitaraua prest

Zapatu eta martitzenerako era guztietako ekitaldiak iragarri dira

Transformismo saioa, diskoteka ibiltaria eta karaokea nobedade nagusiak. Dantzaldiak larunbat eta astearte gauean.

deko dantzen agerpena; gaueko 11etan dantzaldia

Plazan Iruñeko Hermanas Ros Orkestak alaituta eta, ordubatak aldera, Pornoterapia taldearen transformismoko animazio saioa.

Igandean, eguerdiko 12.30etan Udal Musika Bandaren kontzertua Novedadesen eta 6etan diskoteka ibiltaria eta karaoke saioa. Asteartean, be-

rriz, 3.30etan moztrotutako haurren kalejira; jarrarian Musika Eskolako Banda Gaztearen kalejira. 5etan Joku-moku haurren kale antzerkia Jake Mate antzerki kolektiboak aurkeztuta; 7etan Banda Gaztearen kalejira; gaueko 10.30etan dantzaldia Izadirekin eta 12etan Sardinaren entierua.

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

LIZAR



altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA



Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF SERVICE-A**

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Gure flora aberastasuna

Gurbitza (Arbutus unedo)

- Non aurki ditzakegu gurbitzak?

- Ba batez ere kostaldeko artadietan. Barrukaldean, Araba eta Nafarroak artadietan ere badira; normalean artadi haundiekin eta kostarekin identifikatzen dira batez ere. Madrileko eskuduan gurbitz bat eta artza agertzen dira; lehen Madrilen gurbitz asko zeudela pentsatzen zen baina hemen ugariagoa da.

- Bergaran ere baten batzuk badira, ezta?

- Bai, ezusteko haundia izan genuen Etxezarretan (Bergara eta Arrasate arteko mugan, Epele ondoan) gurbitzak topatzerakoan. Jausita dagoen etxe baten hormetan bat irutzen ikusi genuen eta harrিতa geratu ginen, oso arrarua zen. Gutako batek Aloña inguruan ikusita zuela komentatu zuen baina Bergaran nobedadea zen. Hortik aurrera inguru horretan pila bat ikusi ditugu. Jendeak ikusi nahi baditu autopsis-

ta egin baino lehen hurbildu beharko da bertara.

- Eta zeintzuk dira arbola honen berezitasunak?

- Bereizgarriena bere fruitua da. Bola borobil batzuk dira, 2-3 zm. ko di-

Gurbitzaren fruitua edariak, ozpina eta mermelada egiteko erabiltzen zen antzinan. Arbolak, sei metroko altuera hartu dezake eta askotan zuhaitza baino gehiago zuhamuska baten itxura hartzen du



IÑAKI IRIZAR

(biologoa)

ametroa dute eta helduta daudenean gorri-gorri jartzen dira. Oso deigarriak dira eta segituan konturatzen zara gurbitz batenak direla. Arbolak

5-6 m. ko altura izaten du eta askotan arbola baino gehiago zuhamuska baten itxura hartzen dute. Ez dute hostorik galtzen (hosto koriazeuak ditu) eta diuretikoak eta hainbat infekzioerendako ere onak dira.

- Eta fruitua jaten da?

- Bai, oso helduta daudenean jan egin daitezke baina pasatu barik. Alkohola omen daukate eta mozkortu eta buruko-mina izateko arriskua dago. Lehen edaria, ozpina eta mermelada egiteko erabiltzen zen.



Bergaran, Etxezarreta inguruan aurkitu ditzakezue gurbitzak.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Lantalde zabala dabil lexiko berezien bilketa aurrera eramaten. Dagoeneko 6 hilabete daramatza taldeak lanean, galdutako edo galtzear dauden langintzak aztertzen.

Anaje Narbaiza (Zerarritza, arrotzeria eta ebanisteriaz arduratuko da), Jaione Isazelaia (linoa, ehungintza eta jostun lanaz), Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiola (artzantzaz, ikazkintza, karegintza eta edurzuloetat), Iñaki Arana eta Lide Oregi (burdin lana, errementeritza eta perratzailetzaz), eta Jose Angel Mikeo (errotaritzaz) arituko dira lan horietan. Juan Martin Elexpuruk eta Jerardo Elorzak, biak UNEDeko Euskara Departamentukoak, beteko

dituzte, hurrenez-hurren, proiektuaren zuzendari eta aholkulari lanak. Lanaren jarraipena egiteko Miren Azkarate euskaltzaina eta Xarles Bidegain izendatu dituzte.

Lanaren ardatza langintza bakoitzak duen hiztegi propioa berresku-

Bergarako hitz aberastasuna biltzen

Joan zen asteartean, "Bergarako Lexiko Berezituen Bilketa" proiektua aurkeztu zuten UNEDen Bergarako Udaleko eta UNEDeko ordezkariak eta Miren Azkarate euskaltzainak. Proiektua Bergarako Udalaren enkarguz, UNEDeko Euskara Kultur Departamentuak zuzenduko du eta Bergarako Udala 1.900.000 pzta. bideratuko ditu lan honetarako.

ratzea bada ere, Elexpuruk adierazi digunez "ez gara bizkuntza ikuspegi mugatuko, lanbide bakoitzeko prozesua, teknika, historia eta abal den barnekorapilo guztiak ezagutzen saiatuko gara, langintza horiei buruz gehiago jakiteko".

Adineko pertsonekin elkarrizketak

Lana egiteko gure herriko adineko jendearekin elkarrizketak izango dituzte. "Lanbideak desagertuz edo aldatuz doaz eta hitzak ez dira belar naldi batetik bestera pasatzen eta ondorioz asko galdu egin dira. Hitz berriak berreskuratzeko aukerarenengo aukera da, izan ere aintzinako lanbideetan aritu zirenak zabalduak daude eta euren jorkinduria orain aprobentzatzatzen ez baldin badugu aberastasun guzti hori galdu egingo da" di- Elexpuruk.

Orain martxan dagoen lana hemendik urtebete amaitzea espero da eta Udaleko Euskara dinamizatzaileak, Estepan Plazaola, adierazi zuen Udalaren asmoa lan honetarako argitaratzea izango izateke, jendeak lanarekin berri izan dezan.



Astearteko aurkezpena: Juan Martin Elexpuru, Miren Azkarate, Estepan Plazaola eta Jerardo Elorza.

MEKOLALDE

Mekolalde auzoa, tfnoa: 76 59 14

AUTOAK

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...



Merzeria - Lenzerik

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Proiektuari dagokionez, Elexpuruik azaldu digu zein egitura izango duen: "Lehenik langintza bakoitzaren inguruan dagoen guztia modu grafiko batez eman nahi dugu. Gero, lexiko parte biztegi antzerako baten agertuko da eta beste sail batean jasotzen ditugun esaera zahar, ipuinak etab.ak joango dira. Azkenik adineko pertsonekin izandako elkarrizketak idatziz eskeiniko ditugu".

Dagoeneko 6 hilabete lanean

Langintza ezberdinak aztertzen hasi dira eta lehen adierazi dugun bezala Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiolak ikazkintza, karegintza eta edur-zuloak aztertzen dihardute. Orain arte 4 ikazkinekin eta karegile batekin hitz egiteko aukera izan dute.

Lantaldeek elkarrizketak egin baino lehen norberari tokatutako gaiari buruz dokumentatu beharra dute. "Elkarrizketak egin aurretik gaia ondo lantzen dugu eta galdetegi zehatz batekin joaten gara. Berriketaldia magnetofonoan grabatzen dugu eta ondoren transkribatu egin behar dugu. Ondoren fitxak ordenadorean sartzen ditugu, bitza mugatua edo mugagabea den, kualifikazio gramatikalak, si-

nonimoak etab adieraziz" diote Olañeta eta Urkiolak. Elkarrizketak egiteko garrantzitsua da bertako euskara erabiltzea eta horregatik lantaldean daudenak Bergarakoak dira. Horretaz aparte elkarrizketatuari gauza interesgarriak ateratzeko psikologia pixka bat erabiltzea komeni izaten da. "Esate baterako elkarrizketan zehar guk taloa nola egiten den jakin arren elkarrizketatuari prozesua azaltzeko eskatzen diogu, hortik abalik eta hitz edo espresio gehien ateratzeko asmoz" dio Olañetak.

Informazioa jasotzeko prest

Lana egiten ari ziren bitartean anekdotarik ere izan dute. "Lehenengo elkarrizketan, ordu t'erdia berbetan izan ondoren konturatu ginen grabadorak ez zuela grabatu. Beste behin, Elosura joan ginen eta berehala elurra hasi eta argia joan egin zen. Esku hutsik bueltatu beharra izan genuen etxera, baina eskerrak



Lantaldea: Argiñe Urkiola, Amaia Olañeta, Lide Oregi eta Iñaki Arana.


jendeak ondo bartzan gaituela".

Langintza gehienetan aurkitu dituzte lekukoak, baina linogintzan arazokak dituzte, izan ere langintza hau 1.920 inguruan desagertu baitzen eta dirudienez Elosu aldean bada norbait ezagutu edo linogintzari buruz entzun duenik. Norbaitek langintza horiei buruz zerbait baldin badaki edo lanen bat egin nahi badu UNEDeko Euskal Kultur Departamentura edo Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezake laguntza eske. ■

Lanaren ardatza langintza bakoitzak duen hiztegi propioa berreskuratzea bada ere, lanbide bakoitzeko prozesua, teknika, historia eta ahal den barnekorapilo guztia ezagutzea da asmoa

Miren Azkarate euskaltzain bergararra eta Xarles Bidegain izendatu dute "Lexiko Berezien Bilketa" lanaren jarraipena egiteko. Azkarate pasa den astearteko aurkezpenean izan genuen eta lanaren garrantzia azpimarratu zuen. Berak adierazi zuenez, lan hauei esker aintzinako hitzak berreskuratzen dira, eta hau ezinbestekoa da euskara gaurkotzeko. "Hitz bat nola idazten den jakiteko aintzinako liburuetara jotzen dugu. Halere hitz asko daude liburuetan ez direnak agertzen, eta ahozko euskaran erabiltzen direnak. Horiek berreskuratze beharrezkoak dira lan hauek" esan digu euskaltzainak. Horretaz gain, UZEIk eta antzerako erakundeek atara ohi dituzten hiztegi eta lanak osatzeko baliogarria dela aipatu zuen Azkaratek: "proiektua atzera begira interesgarria da, baina aurrera begira baliagarriagoa".

**Aldoka
Maldoka
TABERNA**
Kruz Gallastegi, BERGARA



LASA
Jatetxea
Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

Berrigazte

ikasleen

orriak

Aranzadi Ikastola

2. Zenbakia

eguneroko kontuak

Lanpostua bilatzen

Ipuin honetako protagonista bigarren mailara iritsi zenetik dago lanpostuagatik larrituta, langabetu asko daudela, oso zaila izango dela lana aurkitzea etab. Eta orain berari heldu zaio bilatzeko ordua.

Bere izena Joseba da, 20 urte egin berriak ditu eta altueraz oso bajua da.

Kaletik zihoala egunkaria irakurtzen lanpostu bila...

- Kaka zaharra! Egunkarian ere ez dago ezer, langabetu bulegora joan beharra izango dut. Baina zer da hori? Denda horretan laguntzaile bat behar dute.

Orduan Josebak egunkaria lurrera jaurtikiz korrika bizian jo zuen papela zegoen dendara eta arnasestuka zera esan zion barran zegoen andrari.

- Hor kanpoko papelean jartzen duen lanpostua libre al dago?

- Sentitzen dut gazte baina orain dela zertxobait lehenago etorri den mutil bati eman diogu, oraintxe esango diot senarrari kentzeko. JOXEMARI, JOXEMARI! Noiz kenduko duzu anuntzio arraro hori!

- Oraintxe emakumea ez zaitez larritu.

- Beno ba gaur zorte on izan.

- Beno bai, agur.

Joseba estuturik, dendatik irten eta lehenago lurrera bota zuen egunkaria jaso eta golpe zakar bat jo zuen ondoko tabernako horman.

- A ze fastidioa orain bulegora joan beharra.


Joseba iritsi zen bulegora eta sartzera zihoanean andra bat irten zen atea giltzaz itxiaz, orduan Josebak abiada biziarekin alde egin zuen zera pentsatuz:

- Herri honetatik alde egin beharko dut lan bila, lagunak, gurasoak... utzi eta lan bila joan eta inon ez badut aurkitzen izkina batean eseri eta eskua luzatuz limosnatxo bat eskatzen.

Baina momentu kritikiko hortantxe piztu zitzaion Josebari bonbilla, eta kalearen erdian geldituz zera esan zuen:

- Badakit, etxeko sotoan argazki ikastaroak emango ditut, bane-kien argazki ikastaro horrek zerbaitetarako balio izango zidala.

Orduan Josebak soto osoa garbitu eta gurasoei eskatu zien prestamo batekin klaseak ematen hasi zen, eta ez zuen lan arazorik izan eta ongi bizi izan zen.



MARTIN ZAITEGI

Ikas bidaiatik gator
umore onian
alderantziko ere
alderantziko ere
batzuek txarria
ikastola daukagu
betiko topian
burua apurtzeko
burua apurtzeko
aproposena

Ikas bidaiatik etorri
moreno-morena
notak datozen arre
notak datozen arre
kolore txarreko
inauteriak diru
laster etortzeko
ondo pasa bihar
ondo pasa bihar
notak ahaztutzeko

* * * * *

Aranzadiko neska
eta mutikoa
gure lana egin du
gure lana egin du
Berrigara do
zortzigarrenean
izan da ideia
bertsoa egitea
bertsoa egitea
sarrera gisa

Elkarrizketa bat ere
egina dugula
Rockero talde bat
Rockero talde bat
emanaz lekua
Zazpigarren mailan
mutiko pijua
ipuina egin du
ipuina egin du
bete du lekua

Zenbat urte daramazue musika arloan?

6 urte daramagu.

Nola elkartu zineten?

Lagunak ginelako, batak besteari tresnak erabiltzen erakutsiz.

Nork pentsatu zuen taldea osatzea?

Balenek eta Ibonek.

Nola ikasi zenuten

FACTORIA DEL CRIMEN

"Gure ametsa famosoak izatea da"

elkarrizketa

instrumentuak jotzen?

Gure artean eta entzumenenez.

Diska edo kaset bat ateratzeko asmotan al zabilzate?

Bai, maketa at batera genuen orain 3-4 bat urte.

Bergararik kanpo jotzen al duzue?

Orain ez, baina jo izan dugu.

Nork asmatu zuen taldearen izena?

Balenek.

Zenbat zaudete taldean? Nortzuk?

Balen, Ibon, Wimo eta Berasa, hasieran hiru baginen orain lau gara.

Non entsaiatzen duzue?

Pizinetan.

Nola hartu zenuten lokal hori?

Udaletxearen bidez.

Zuek asmatutako kantak ala beste talde batzuenak jotzen dituzue?

Guk asmatutakoak.

Zein da zuen talderik gogokoena?

Ez dugu talde berezirik gogokoen.

Zein da zuen ametsa?

Famosoak izatea

PERU SAGARNA, MARTIN

ZAITEGI, ANIOTZ

BIRUNBRALES, IÑAKI

ZABALETA



Balen, Wimo, Berasa eta Ibon.


azken bertsoak

Nahiz eta notak izan burua nahasteko disfrazatu beharko disfrazatu beharko ondo pasatzeko inauteriak aurten dira alaitzeko disfraz polit batekin disfraz politekin ez ezagutzeko

Inauteriak hasteko modu onenian jokuak in dittugu jokuak in dittugu eguna hastian irakasleen aurka ere partidu batian lotsatuko dittugu lotsatuko dittugu ikasle aurrin

BERTSO EGILEAK:

ANIOTZ BIRUNBRALES, IÑIGO ARREGI, IRATI ELEXPURU.



Orain dela 10 urte baino euskara gehiago egiten da gaur egun Bergaran?




Iñaki Legazpia
25 urte, irakaslea

Nik uste dut Bergaran ez dela aldaketa nabarmenik egon. Hobetu bai baina ez gehiegi. Herri erdaldunagoetan gehiago igarriko zen.



Josune Gantxegi
34 urte, langabetua

Nere ustez bai. Ni Osintxukoa naiz eta han beharbada zertxobait gehiago nabaritzen da. Baina Bergaran ere bai. Ni ere saiatzen naiz...




Jose Luis Gandiaga
30 urte, langilea

Bai, uste dut baietz. Lehen jende nagusiak bakarrik egiten zuen euskaraz baina orain gazteak gero eta gehiago. Eta ondo dago hori.



Mila Agirrezabal
42 urte, langilea

Nere ustez antzerako egoeran gaude, bakarrik gazteen artean eman den aldaketa nabaritzen dut. Bestela ez dago aldaketa haundirik.



Juan Mari Garai
47 urte, langilea

Gazteak orain guk baino hobeto egiten dute euskaraz, gero eta gehiago entzuten da. Ikastetxeek eragin handia izan dute hori igotzeko.



Irene Azkarate
44 urte, dendaria

Bai, gero eta gehiago egiten da euskaraz. Bai neska-mutikoak eta bai gurasoen partetik... Orain arte egiten ez genuena egiten dugu eta igartzen da.

FANCY
GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

**PETRIKILO
MASAJISTA
KARTA-AZTIA**
☎ 76 47 24 (Gonzalo)

**HAGIN KLINIKA
BERGARA**
LEHEN AZTERKETA DOAN
Bidekurutzeta, 6 2. (Lehengo Notarian)
☎ 76 05 77

ETXE BERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA Tfnoak: 76 23 94 - 76 12 65



Intsumisio elektrikoa

Antzuolan bizi naiz, gustora gainera. Badakizue, zuengandik 3 kilometrotara dagoen herri eder honetan, ogi mundiala jaten dugu egunero, ur fresko freskoa edan udaran zein neguan, ia ia euskal-giroan bizi... eta nobedade handirik ez dagoenean, haserre eta pozen artean joaten zaizkigu egunak, beste toki askotan bezala. Beharbada, zerbitzu mailan, Antzuolak ez du Bergarak beste aukerarik: pizinarik ez dago, ezta oraingoz kultur etxerik ere, askoz ere denda gutxiago daude... baina lasaitasuna nahi eta bere herria maite duenarentzat, ez du aparteko garrantzarik, oinarrizko zerbitzuak egon badaude eta.

Baina zer gertatzen da oinarrizko zerbitzu horiek behar bezala ez dabiltzanean? Argi-indarrak ari naiz. Elur puska bat edo haize apur bat nahikoa dira Antzuola argi barik uzteko, kandelen garaira itzuli, umeei ipuinak kontatu edo eta espiritismo sesioak egiteko parada eskainiz. Ez dira ohitura txarrak, baina norberak aukeratzen dituen.

Iberduero edo Iberdrola, nik zer dakit ba! ez dabil tza behar bezalako zerbitzua eskaintzen ari, ez baita normala eguraldia kapritxoso jartzen den bakoitzean antzuolarrak argi barik gelditu behar izatea. Logikoena halako zerbitzuari halako ordaina ematea izango litzateke, baina fakturan ez da, ezta eguraldi txarrarekin hartuta ere, inolako "etenik" gertatzen. Gauzak aldatzen ez badira intsumisio elektrikoaren aldeko kanpaina egin beharko dut, abixatuta zaudete.

Beñardo KORTABARRIA



Euskaltzaindiari

"Euskara batuak" hizkuntza zaharrari egin dion ekarria oso garrantzitsua izan da. Elkar ulertu ahal izateko, jendea euskalduntzeko edo denok alfabetatu ahal izateko besteak beste, euskara batu baten beharra zegoenik ezin da ahaztu.

Ahalegin sendoak egin ziren eta egiten ari dira nolabaiteko batasun hori lortzeko. Nire ustez, arazoa ondorengoa da: Batasunerako erabiltzen dituzten eriz-pideak. Badakit ez dela batere erreza hainbeste aldaera kontutan hartuta, eredu bakarra lortzea. Dena den, aitortu beharra dago euskalki batzuen adierazpena beste batzuen baino askoz nabarmenagoa dela. Gipuzkera eta lapurteraren eragina adibidez erabatekoa izan da euskara batuaren sorreran.

Euskalki bakoitzak bere berezitasunak ditu. Eta berezitasun horietako bakoitzak isladatzen du hizkuntza baten aberastasuna. Honexegatik eskatuko nioke Euskaltzaindiari (bera baita izenak dioen bezala "euskara zaintzen duena") gainontzeko euskalkien aberastasun iturriak aztertzeko, lantzeko eta hedatzeko.

Eta bakoitzak bereari eusten dion ezker, neuk ere hori egingo dut. Nere eskakizuna, baztertuta dagoen Bizkaiera ezagutaraztea eta bultzaraztea.

Josune IÑARRA

EDEL

TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3 Ibargarai, 2
☎ 76 22 93 ☎ 76 53 22

Mujika

Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

ES

oto sistema *APBénis*

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneiterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50



Juan Ramon Irizar Tele-5n

Juan Ramon Irizar bergararrak (Avenida tabernakoa) parte hartu zuen asteazkenean Tele 5-ko *La ruleta de la fortuna* lehiaketan. Otsailaren 1ean grabatu zen **Andoni ferreño** ermuarrak aurkezten duen saioa -telebistan asteazkenean eman zuten- eta primeran pasa zuen Juan Ramonek. Horrez gain, 380.000 pta.ko saria eraman zuen; finalera heldu ondoren, ez zuen panelean agertzen zen objektu (erlikiario bat) baten izena asmatu eta, Citroen AX kotxe bat irabazteko aukera izan arren, azkenean diruarekin konformatu behar izan zuen. Hala ere Bergararen izena toki onean utzi zuela esan dezakegu. Aurkezlea Ermuan jaiotakoa dela eta, behin baino gehiagotan errepikatu zuen gure herriaren izena. Juan Ramon, berriz, bere aurkariak baino azkarrago ibili zen, hiru lagun artean onena izan baitzen.

60 urte elkarrekin

Tomas Sebal eta Maria Mendizabalek beren ezkontzaren urrezko eztaiak egin berri dituzte. 1934ko otsailaren 9an Zelaia apaizak ezkondu zituen Arantzazun eta elkarrekin igarotako 60 urteak ospatzeko, larunbatean familiartekoekin batera bazkaria izan zuten Altsasun. Zorionak Maria eta Tomasi eta platinozko bodak bete arte agurtzen zaituztegu.



Zatoia
Boutique

Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14



GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Urrezko eztaiak

Jose Joakin Gabilondo eta **Rafaela Garitaonaindia** bergararrek beren ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu zituzten larunbatean familiartekoeekin batera. 1944ko otsailaren 5ean ezkondu ziren Rafaela eta Jose Joakin eta larunbatean San Prudentzian meza entzun eta ondoren bazkaria izan zuten bertako elkartearen, 30 lagun inguru bilduz (tartean beren 7 alabak eta 11 ilobak). Zorionak Rafaela eta Jose Joakini eta ondo segi!!



Miloi erdi

500.000 pta. irabazi ditu **Lierni Laskurainek** Deba Garaiko Gurutze Gorraren Gabonetako loterian, 56.998 zenbakiari esker. Argazkian **Iñaki Alberdi** (Lierniren senarra) saria jasotzen Mikel Garagorri Gurutze Gorrako presidentea eta Victoriano Gallastegi alkatearen eskutik.



Zertan dibardute ba?




Xabier Alberdi Sato (goiko argazkian) eta **Josu Arana** izango ditugu aurrerantzean JARDUN Elkarteko Gazte Taldeko dinamizatzaileak. Horrez gain, Kartzela Zaharreko iharduerak aurrera eramango dituzte. "Sato"ren hitzetan, "basi besterik ez dugu egin baina gure helburua 12 urtetik 20ra bitarteko gazteentzat ekitaldi ezberdinak antolatu, eskaintza zabala egin eta Gazte Taldearekin lan egitea litzateke". Xabier Alberdik 26 urte ditu eta Majisteritza (Eskoriatzan) eta Bideo Ikasketak (Andoainen) burutu ditu. Josu Aranak, berriz, 24 urte ditu, Lanbide Hezkuntza egin du eta, horrez gain, Bergara K.E.ko preferente futbol taldeko kapitaina da.

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarraillak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak



Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Jose Antonio Luque

Periodiko saltzailea

30 urte bete zituen asteazkenean. Horietatik 10 zine proiektionista modura eman ditu. Orain, egunero, 1500 egunkari inguru saltzen ditu Plazako kioskoan.

- Periodikuak ala errebistak.
- Berdin zait.
- Prentsa larrosa ala horia?
- Ez bata, ez bestea.
- Irratia ala telebista.
- Telebista.
- Programa bat.
- National Geographiceko dokumentalak.
- Futbol talde bat.
- Real Madrid.
- *Buitrearen Kinta* bai ala ez.
- Erdizka.
- Ramon Mendoza edo Jose Maria Garcia.
- Ez bata ez bestea.
- Pelikula bat.
- El club de los poetas muertos.
- Zinean palomitarik bai?
- Zergatik ez?
- Kim Bassinger ala Sharon



"Real Madrid da gustoko dudan futbol taldea, baina Buitrearen Kintak ez nau guztiz konbentzitzen"

Stone?

- Biak.
- Bajo Ulloa ala Julio Medem.
- Bajo Ulloa.
- Gaueko sesioa ala matinala?
- Gauekoa.
- Zinean egin duzun hutsik haundiena.
- Iragarrita ez zegoen filma bat ematen hasi.
- Inoiz moztu duzu pelikularik zentsura modura?
- Ez.
- Bidaia bat?
- Estatu Batuetara.
- Sagardotegira joateko asmorik?
- Bai.
- Herriko festarik onena.
- Pazkuak.
- Tonika izotzarekin ala ginebrearekin.
- Biekin.
- Astebukaera non?
- Bergaran.
- Zer ez zenuke irla desertu batera eramango.
- Irrati bat.
- Liburu bat.
- El oso cavernario (J.M. Auel).
- Bosniara boluntario joango zinateke?
- Ez.
- Zelan konpondu daiteke hango egoera?
- Ez dakit, konplikatuegia da.

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Teileria ☎ 76 27 93
Labegaraita Auzoa

anezka

**Udazkenerako oihalak
eta lenzeria**

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25




zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

JOSE LUIS CARNICERO

JARDUNEK antolatu berri duen **II. Komiki Lehiaketan** saritutako bi lanetan Dinosaurioak ziren protagonistak. Lan horien eta egileen izenak galdetzen genituen aurreko Galde Debalde. Erantzunak honako hauexek dira: **Bittor Rodriguezen "Behin batean Bergaran"** eta **German Larrañagaren "Bergarasik Park"**. **Jose Luis Carnicero** jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria.

Berarentzat izango da, beraz, **ZUBIKUA JANTZIDENDAK** emandako sari bikaina.

Zorionak **Jose Luisi** eta besteek ez etsi, segi jokatzen.

HERRAN ETXEA



Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4 ☎ 76 37 53

- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- BERO-AKUMULADOREAK

FAGOR


Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



JOSE LUIS CARNICEROK jaso du
aste honetan ZUBIKUA
JANTZIDENDAK emandako saria.



umelaga
JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria
ZUMELAGA JATETXEAk
emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Astelehenean maitemindurik daudenen eguna, San Valentin, ospatzen da. Hori guztio jakingo duzue dagoeneko. Baina aste honetako galderak, San Valentinekin zerikusirik baduen arren, maiteminduta daudenen egunarekin zerikusi gutxi du, zeren eta Euskal Herrian, bada beste San Balentin ospetsu bat, Elorrioko Berriotxoakoa hain zuzen ere Berriotxoako Balentinen ama Antzuolakoa zen eta aste honetan ez dizuegu amaren izena galdetuko, honek Monika izena baitzuen. Hauxe galdetuko dizuegu:

Antzuolako zein baserritakoa zen Berriotxoako Balentinen ama?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

KIROL EMAITZAK

FUTBOLA

- Prefente maila:
Bergara 2-Aloña Mendi 0
- Lehen erregionala:
Groseko 1-Bergara 1
- Lehen mailako jubenila:
Bergara 7-San Ignacio 1
- Lehen mailako kadetea:
Amaiak Bat 3-Bergara 2
- 2. mailako kadetea:
Bergara 2-Arrasate 5
- Lehen mialko infantila:
Bergara 5-Urki 2

ESKUBALOIA

- Senior mutilak:
Bergara 22-Urrietako 16
- Jubenil neskak:
Bergara 7-Lasalle Leg. 10
- Kadete mutilak:
Don Bosco 16-Bergara 28

SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak:
Athl. S. Seb. 45-Bergara 61
- Infantil mutilak:
Almen 13-Aranz. Ikast. 41
- Kadete neskak:
Bergara 57-Arrasate 42

PELOTA

- (Euskal Liga)
- Jubenilak binaka:
Bergara 22-Azpeitiako
Ilunpe 16



Ezkerretik eskumara, Laskurain, Murgiondo eta Garitano Akonkaguako gailurrean.

Bergararrak Ankonkaguako gailurrean

Roman Laskurain, Miguel Angel Murgiondo, Juan Ramon Garitano eta Imanol Bolinaga bergararrek Akonkaguako gailurra (6.959 m.) zapaltzea lortu dute. Lehen hirurak urtarrilaren 14an iritsi ziren tontorrera; Bigarren kanpotik (5.850 m.) gailurrera 7 ordu eman zituzten bergararrek. Imanol Bolinagak, berriz, lehen tentaldian huts egin ondoren urtarrilaren 20an lortu zuen, beste bi napparren laguntzaz, Amerikako mendirik altuena. Handik bi egunetara bere espediziokideekin elkartu zen Mendozan Imanol Bolinaga.

Jose Martin Arreseigor bosgarren espediziokideak, berriz, ezin izan zuen goraino iritsi osasun arazoak zirela medio. Aklimatatzerako orduan arazoak izan zituen Arreseigorrek eta ez zuen bere lagunekin batera gailurra egiteko saiakera egiterik izan. Espediziokideeen esanetan, gailurra lortzeko ezinbestekoa zen aklimatazio on bat egitea eta helburu horrekin, Cerro El Plata (6.310 m.), Franke (5.100), San Bernardo (4.450), Iluso (4.150) edota Caucaso (4.050) mendiak egin zituzten.

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

MUGICA
Goxotegia

pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...
Artekale, 3
☎ 76 10 34

GALLASTEGI
Jostundegia
mahoizko lanerako
jantziak
San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

1. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---------------------|-------|----|----|---|---|------------|-------------|
| 1. Errotagain | 22 | 11 | 11 | 0 | 0 | 66 | 11 |
| 2. Madura | 20 | 10 | 10 | 0 | 0 | 39 | 11 |
| 3. Bildurbarek LAM | 16 | 11 | 9 | 0 | 3 | 50 | 46 |
| 4. Toki Eder | 15 | 11 | 7 | 1 | 3 | 66 | 27 |
| 5. Angiozar | 14 | 11 | 6 | 2 | 3 | 54 | 31 |
| 6. Mongatxurra | 13 | 11 | 6 | 1 | 4 | 47 | 28 |
| 7. Bar Canalejas | 11 | 11 | 4 | 3 | 4 | 33 | 36 |
| 8. Ezinleike | 11 | 11 | 4 | 3 | 4 | 35 | 42 |
| 9. Arloteak | 11 | 11 | 4 | 3 | 4 | 29 | 40 |
| 10. Os Jardineiros | 10 | 11 | 4 | 2 | 5 | 46 | 54 |
| 11. Usoa | 10 | 11 | 4 | 2 | 5 | 33 | 35 |
| 12. Soropotroak | 8 | 11 | 4 | 0 | 7 | 36 | 40 |
| 13. Nahikari Hooll. | 8 | 11 | 3 | 2 | 6 | 27 | 37 |
| 14. Guadalest | 8 | 11 | 3 | 2 | 6 | 25 | 44 |
| 15. Shaktale | 7 | 11 | 3 | 1 | 7 | 25 | 54 |
| 16. Ogizun Okind. | 7 | 10 | 2 | 3 | 5 | 24 | 35 |
| 17. Kriston Potruak | 7 | 11 | 3 | 2 | 6 | 27 | 37 |
| 18. OH Zerezos | 6 | 10 | 3 | 1 | 6 | 32 | 41 |
| 19. Kriterium | 6 | 11 | 2 | 2 | 7 | 29 | 44 |
| 20. Akort Ariznoa | 4 | 10 | 1 | 2 | 7 | 21 | 53 |

2. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|--------------------|-------|----|----|---|----|------------|-------------|
| 1. Arkupe | 29 | 16 | 14 | 1 | 1 | 89 | 38 |
| 2. Hartu Zamat | 27 | 16 | 13 | 1 | 2 | 82 | 42 |
| 3. Etxagi | 26 | 16 | 12 | 2 | 2 | 84 | 42 |
| 4. Revienta | 26 | 16 | 13 | 0 | 3 | 69 | 43 |
| 5. Ufala | 25 | 16 | 12 | 1 | 3 | 89 | 40 |
| 6. Ozaeta | 24 | 16 | 11 | 2 | 3 | 100 | 40 |
| 7. Kalimotxo | 24 | 15 | 12 | 0 | 3 | 77 | 40 |
| 8. Uve Bikoitza | 22 | 16 | 10 | 2 | 4 | 80 | 56 |
| 9. Eri | 20 | 16 | 9 | 2 | 5 | 71 | 52 |
| 10. Amozkibar | 19 | 16 | 9 | 1 | 6 | 67 | 43 |
| 11. Ari Ari | 18 | 16 | 9 | 0 | 7 | 67 | 68 |
| 12. Igandekoak | 16 | 16 | 8 | 0 | 8 | 60 | 61 |
| 13. Krai | 14 | 16 | 7 | 0 | 9 | 68 | 66 |
| 14. Egoki | 14 | 16 | 6 | 2 | 8 | 64 | 65 |
| 15. Matalascañas | 14 | 15 | 6 | 2 | 7 | 42 | 44 |
| 16. Txipiron | 14 | 16 | 5 | 4 | 7 | 50 | 59 |
| 17. Paok San Juan | 13 | 15 | 6 | 2 | 7 | 49 | 49 |
| 18. Kirolzaleak | 13 | 15 | 6 | 1 | 8 | 58 | 74 |
| 19. Aldoka Maldoka | 12 | 16 | 5 | 2 | 9 | 40 | 65 |
| 20. Labegaraieta | 11 | 16 | 4 | 3 | 9 | 31 | 84 |
| 21. E.H. Biterrak | 9 | 16 | 3 | 3 | 10 | 42 | 65 |
| 22. Pata Negra | 9 | 16 | 4 | 1 | 11 | 38 | 81 |
| 23. Los Txupeta | 8 | 16 | 3 | 2 | 11 | 34 | 62 |
| 24. Eusebio II | 2 | 15 | 1 | 0 | 14 | 32 | 96 |
| 25. K.K. Usaina | 0 | 15 | 0 | 0 | 15 | 24 | 112 |

emaitzak

| | | |
|----------------|------|-----------------|
| Usoa | 6 11 | Nahikari Hooll. |
| Ogizun Okind. | 7 5 | Angiozar |
| Shaktale | 1 12 | Errotagain |
| Kriterium | 2 2 | Akort-Ariz |
| Os Jardineiros | 4 8 | Bildurbarek LAM |
| Bar Canalejas | 4 12 | Toki Eder |
| Soropotroak | 1 5 | Arloteak |
| Guadalest | 6 3 | Kriston Potruak |
| Ezinleike | 1 5 | Mongatxurra |

hurrengo partiduak

Astebukaera honetan 2. mailan ari direnek ez dute partidurik jokatu.

golegileak

1. Iñigo Pagaldai (Angiozar) 21 gol
2. Iñaki Mujika (Tokieder) 19 gol
3. Fernando Salinero (Ogizun) 18 gol
4. Fernando Agirre (Toki Eder) 17 gol
5. Aitor Anton (Errotagain) 17 gol

emaitzak

Joan zen astebukaeran ez zen bigarren mailako partidurik jokatu.

hurrengo partiduak

• LARUNBATA •

- 09.00: Eri-Matalascañas
10.00: Ozaeta-Revienta

• IGANDEA •

- 09.00: Arkupe-Txipiron
10.00: Labegaraieta-KK Usain
11.00: EH Biterrak-Ufala
12.00: Uve Bikoitza-Pata Negra
13.00: Eusebio II-La Txupeta
16.30: OH Zerezos-Madura
17.30: Hartu Zamak-Kirolzaleak
18.30: Etxagi-Ari Ari

golegileak

1. Ivan Agirrebeña (Ozaeta) 42 gol
2. Andoitz Garitano (Arkupe) 35 gol
3. Juantxo Izuskiza (Etxagi) 35 gol
4. Igor Agirrezabal (Kalimotxo) 31 gol
5. Joseba Larrañaga (Eri) 31 gol

Txinpartak

▼ Dagoeneko denboraldi erdia pasatxo denean, klasi-fikazioei gainbegirada bat ematen badiegu ondorio batzuk atera ditzakegu: alde batetik, bi mailetakoko taldeak kontutan hartuta, 45 talde guztira, 2 bakarrik dira partidu guztiak irabazi dituztenak eta biak lehen mailakoak dira: **Errotagain** eta **Madura** hain zuzen ere. Lehenengoak 11 partidu jokatu ditu eta bigarrenak 10 eta biak lortu dituzte jokoan zituzten puntu guztiak.

▼ Bestalde, talde bakar batek galdutu jokatu dituen partidu guztiak, bigarren mailako **KK Usaina** ekipoak. 15 partidu jokatu ondoren saikapenaren azken postuan aurkitzen da batera punturik gabe.

▼ Bigarren mailan lehenengoan baino gol gehiago sartu dira orain arte. Kontutan hartu behar da bigarren mailan partidu gehiago jokatu direla eta talde gehiago ari direla. Txapelketan ari diren 45 taldeetatik, bakar batek lortu du 100 golera iristea, hain zuzen ere **Ozaeta** taldeak. 100 gol baino gehiago sartu dizkioten talde bakar bat dago, **KK Usaina**, (112 sartu dizkiote).

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

- Bergara-Amaikak Bat (Lehen Regionala) Larunbata, 16.45, Ipintzan.
- Bergara-Elgoibar (Lehen mailako kadeteak) Larunbata, 15.45, Ipintzan.

ESKUBALOIA

- Bergara-Ordizia (Jubenil mutilak) Larunbata, 12.15,
 - Bergara-Mundaiz (Kadete mutilak) Larunbata, 17.30,
 - Bergara-Bidebieta (Kadete neskek) Larunbata, 18.45.
- Hirurak Labegaraietan.

SASKIBALOIA

- Bergara-Sto Tomas Liz. (Jubenil mutilak) Larunbata, 16.00, Labegaraietan.

PELOTA

- **Euskal Liga** -
- Bergara-Ortuella (jubenilak banaka)
- Bergara-Oberena (jubenilak bikoteka) Igandea, 12.00, Udai Pelotalekua.
- **Profesionalak** -
- Soroa III eta Oregi / Goñi eta Oliden
- Unanue eta Zezeaga / Etxaniz eta Galarza III
- Telletxea / Errasti II (2. mailako txapelketakoa) Larunbata, 16.30, Udai Pelotalekua.

Iñigo Zaitegi Bergara K.E.ko presidentea "Aurreko direktibak 2 milioi t'erdiko defizita utzi digu"



Iñigo Zaitegi eta Bigen Aranzabalek emandako prentsaurrekora ez zen aurreko direktibako inor agertu.

Iñigo Zaitegi Bergara K.E.ko presidentea eta Bigen Aranzabal diruzainak prentsaurrea eman zuten astelehenean, aurreko direktibaren defizita 2.500.000 pta.koa dela argitzeko, eta ez 200.000 pta.koa, kontuen emaitzetan aurreko zuzendaritzak aurkeztu zuen moduan.

Zaitegi eta Aranzabal arabera, defizit berri hau argituta geratu da Alex Garitano eta Josetxo Zabalarekin, aurreko presidentea eta diruzainarekin. Izan ere, biak gonbidatuta zeuden asteleheneko prentsaurrekora

baina azkenean ez ziren agertu.

Bigen Aranzabalek esan zuenez, defizit hori bete ez diren prebisio batzuren ondorioa da; kirol eskolan 1.100.000 pta. aurrikusi eta 550.000 jaso ziren, azkenean ingesatu ez diren beste 900.000 pta. aurrikusita zeuden, publizitaterako beste 350.000 eta kontutan hartu ez ziren federazioko gastuak (180.000). Era berean, pelota eta eskubaloia sekzioei 500.000 pta. zor zaie eta agortuta zegoen 2 milioi pta.ko kredo kontu bat eta ordaindu gabeko hainbat

faktura ere aurkitu ditu oraingo direktibak. Horren ondorioz, diru prentsiario dago gaur egun Bergara K.E. eta 6 milioiko kredo kontu bat eskatu behar izan du.

Udalarekin negoziatzeko asmotan

Hori gutxi balitz, Udalak 1.500.000 pta. tan gutxitu dio dirulaguntza (iaz 5 milioi eta aurten 3.500.000), aurten indarrean jarri diren baremo berrien eraginez. Hala ere, Zaitegi eta Aranzabalen ustetan, elkarte nahiko aberatsa da beste talde batzuekin konparatuz duen patrimonioagatik (Agorrosingo zelaia eta taberna tartean). Aldi berean, herriko enpresa eta dendarien artean bazkide kanpaina bati (momentuan 450 bazkide ditu) ekingo diotela adierazi zuten. Udalak ematen dien dirulaguntza berriaz negoziatzeko aukera ere aurreratuta zuten, oraingo sistemak bereziki Bergara K.E.ari kalte egiten diola uste baitute elkarteko aginteriek.

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA



Makilatu nahi eta ez badakizu nola, edo zure estiloa aldatu nahian bazabiltza, **LILURA EDERTZE INSTITUTUAN** zeure burua makilatze ikastaroak eskaintzen dizkizugu, profesional batek zuzenduta.

Informa zaitetz 76 31 71 telefono zenbakian edota bisita gaitzazu Bergarako Bidekurutzeta kaleko 7. zenbakian, lehen pisuan.

Ikastaroaren prezioa: **5.000 pzta.** Plaza mugatuak.

Ordutegia: Astegunetan: 9.30-20.30. Larunbatetan: 9.00-14.00.



Clan 5: 70eko hamarkadako rockero bergararrak

Bergarak ez du rock talde askorik eman, hori onartu beharra dago. Herriko abesbatzek eta Musika Bandak garai batean eta Musika Eskolak gaur egun Bergararen izena Euskal Herri osora zabaltzea lortu badute ere, ezin dezakegu gauza berbera esan rock taldeei buruz.

Hala ere, banaka batzuk izan ditugu. Gaur egun ere badira beren entsaiu lokaletan lanean ari direnak. 70eko hamarkadan inguruko herrietan ezaguna egin zen bergarar talde bat argazkian agertzen den Clan 5 duzue. Irratiek antolatzen zituzten musikari berrientzako lehiaketetan parte hartu zuten behin baino gehiagotan eta Arrasateko Idoia dantzalekuan sari bat ere eskuratu zuten.

Goian duzuen erretratu Ariznoa dantzalekuan (Potzua) ateratakoa da eta bertan agertzen direnak, hau da taldearen bigarren garaia osatzen zutenak honako hauexek dituzue ezkerretik eskumara:

Jabi Etxeberria (teklatura), Josean asturiarra (ahotsa), Antonio Rodriguez "Extremadura" (kitarra), Ricardo Iñarra "Pomelo" (bateria) eta Alberto Arruti "Azurra" (bajoa).

Argazkia: Alberto Arruti

BEHEKO TABERNA

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

ETXEBIZITZA

Garajea (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Berriztutako **pisua** salgai. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Etxea salgai Katabian. ☎ 76 53 30.

Garajea salgai Iparragiren. ☎ 76 28 52.

Pisua salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauzez).

Mugerzan etxea salgai. 101 m2. Behe solairua, terraza, lorategi eta ortuarekin. ☎ 76 12 86.

Etxe bat alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Matxiategin. ☎ 76 37 97.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Etxea salgai Masterrekan. ☎ 76 48 30.

Pisu amueblatua salgai Bolun. Prezio interesgarria. ☎ 761075 (gauzez).

DENETARIK

Aulki hondatuei soka berria jarri eta gogortu egiten ditugu. ☎ 79 15 96.

Talbot Samba (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

Viallaroo PK50 motoa salgai. Berria. ☎ 76 33 86.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peugeot 205 GTX kotxea salgai (SS-X). ☎ 76 09 05.

Petrikilo, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

Golf 4X4 kotxea salgai. 2 urte. ☎ 76 47 57 (gauzez).

Onix motorra (50 cc.) ia berria salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

Sega Megadrive kotsola salgai. 2 jokurekin. 19.000 pta. ☎ 76 25 12 (Astebukaeretan deitu).

Egunero goizez **Gasteiz** era joateko **kotxea** behar dut. ☎ 76 03 20.

Schneider Euro XT ordenagailua salgai. Disko gogorra (20 mb). ☎ 88 96 40 (Tere).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Butanozko Mepamsa estufa salgai. ☎ 76 01 13.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

R-18 diesel (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Lau pertsonarentzako **bi litera** salgai. Koltxoiarekin. ☎ 76 37 29 (Martin).

Ilea eta bizarra mozten aritzen naiz etxez etxe. ☎ 764198 (goizez).

Peltz eskalada ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

LANA

Gutxitu sikiko, elbarri edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Lanak **ordenadorez** pasatzen ditut. ☎ 797759 (Fernando).

Pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Propaganda banatuko nuke. ☎ 764094 (Jaime).

Haurrak eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

Ingeleseko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 762290 (Ainhoa).

Andra edadetu batek **etxe**ko lanak edota **haurrak** zainduko lituzke. ☎ 762724 (Dolores).

Matematika eta fisika klaseak. ☎ 761093 (Asier).

Latin, Euskara eta Frantses **klaseak.** ☎ 76 02 99.

Hildakoak

Mari Carmen Arriaran Arzelus
otsailak 3, 71 urte
Antonia Urbistondo Auzmendi
otsailak 9, 87 urte

Jaiotakoak

Borja Pueyo Ezkurra
otsailak 1
Jokin Etxabe Leturia
otsailak 3
Beñat Etxabe Leturia
otsailak 3
Ekaitz Irazola Glez. de Durana
otsailak 4

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea
Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

**ETXIAN DANOK EUSKALDUNAK
ZARETE?
BA, ORDUAN...**

**HARTUIZUE ETXIAN
EUSKARA-IKASLE BAT**

**EUSKERIAK
IRABAZIKO DAU
ETA ZEUEK PE BAI**

*Eusko Jaurlaritzak 60.000 pzta. emongo
dotzue hilleko.*

*Informaziño gehixao, Udaletxeko
Euskara-Zerbitzuan, bertara joanda ero
telefonoz deittuta. Tfnoa: 76 39 42
Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua*

